



A ERANSKINA

Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioak
Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoak

A.1.- Beste lurralde historiko batean lanpostua hautatzeko eskabide-epea

Erreferentziakoa ez den beste lurralde historiko batean lanpostua hautatzeko eskabidea egiteko epea 2019ko ekainaren 17tik 19ra egongo da zabalik (egun biak barne).

Eskabidea edozein Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzatan aurkeztu beharko da, H eranskinean agertzen den eredian.

A.2.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda

2019-2020 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda 2019ko ekainaren 28ko 09:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

Pertsona horiek jarraian agertzen diren esleipen-talderen batean bilduko dira:

- Haien lanpostua eraldatzeagatik behin betiko destinoa hizkuntza-eskakizuna bete duten lanpostuetan izan eta egiaztatu ez duten pertsonak.
- Nahikoa ordu ez duen behin betiko destinoko lanpostua duten pertsonak.
- Behin betiko destinoa espresuki kendu zaien pertsonak.
- Epaia betetzeagatik behin betiko destinoa galdu duten pertsonak.
- Lanpostu huts bat betetzeko zerbitzu-eginkizun bat eman zaien pertsonak.
- Destinoaren zain dauden, edo behin-behineko destinoa duten beste pertsona batzuk.

A.3.- Pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko ekainaren 28ko 09:00etatik 12:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko da.

A.4.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda

2019-2020 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda 2019ko uztailaren 1ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

A.5.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko uztailaren 1ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean. Era berean aditzera emango da zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.



A.6.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea 2019ko uztailaren 1ko 14:00etan ireki, eta 2019ko uztailaren 3ko 20:00etan itxiko da.

A.7.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena 2019ko uztailaren 8ko 14:00etan emango da argitara, Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.

A.8.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko uztailaren 8ko 14:00etatik 2019ko uztailaren 9ko 14:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa irakaslegunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

A.9.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena 2019ko abuztuaren 29eko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta irakaslegunean.